

TANIA INGRAM

JINNY & GOOPER



IRAKASLEAREN
SEKRETUA

desclée

TANIA INGRAM

JINNY ^{ETA} COOPER

→
IRAKASLEAREN
SEKRETUA

desclée



Jatorrizko izenburua:
Jinny & Cooper - My Teacher's Big Bad Secret
© Penguin Random House Australia. 2016
© Testua: Tania Ingram, 2016
© Ilustrazioak: Tony Flowers 2016
© Itzulpena: Maddalen Amurrio González

© 2018, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.
Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.desclee.eus
www.edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak). CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-3009-2
Legezko gordailua: BI-1539-2018
Inprimatzailea: Gómez Aparicio Artes Gráficas



1. a1a1a

Betidanik nahi izan dut akuri bat.

Urre-kolorekoa, ile leun distiratsua eta sudurtxo arrosa dituena. Urtez urte, horrelako bat eros ziezadaten erregu egin nien gurasoei (eta aita atzerrira joan zenean, alamena ematen jarraitu nintzaion amari).

—Sentitzen dut, Jinny -esan ohizuen amak-. Txikiegia zara oraindik halako erantzukizuna zure gain hartzeko. Akuriek uste baino arreta handiagoa eskatzen dute.

Ez badakizue, Jinniferren laburdura da Jinny. Jenniferren antzekoa, baina «i»

letrarekin. Amaren birramonak ere horrela zuen izena. Edozelan ere, nik nahiago dut Jinny deitzea. Nire neba txiki Tyronek Jiffer esaten dit batzuetan, ikaraturik edo txeratsu dagoenean, hain zuzen.

Ez da bereziki maitekorra, baina zortzi urte dituenetz, askotan izutzen da oraindik.

Baina goazen harira. Zentzua dudanez geroztik nahi izan dut akuri bat. Hortaz, zur eta lur gelditu nintzen amak esan zidanean hamar urte betetzean animaliatxoa erosiko zidala.

—Zenbat balio duten ikusi beharko dugu aurrena —esan zidan.

—Urrearrain bat izan dezaket? —galdegin zion Tyronek—. Uztaiak zeharkatzen irakatsiko nioke.

—Akuriarekin nahikoa izango dugu oraingoz —erantzun zion amak.

Tyronek purrust egin zuen, eta zilborrarekin jolasteari ekin zion berriz. Neba txikiak zerriak izan ohi dira, baina nireak txapela merezi zuen. Izugarri gustuko zuen zilborrean ile bila ibiltzea. Gizon batek zilborreko biloa biltzeagatik mundu-marka lortu zuela irakurri zuenetik, errekorra hausteko xede hartu zuen. Nazkagarria da, bai.

Hamar urte bete baino bi egun lehenago, herriko maskota-dendarik handienera joan ginen. Jabea gizon urduria zen, oso xelebrea. *'Gary, edozertan laguntzeko prest'* zioen alkandoran zeraman bereizgarriak.

Poz-pozik jarri zen amak akuri bat nahi genuela esan zionean. Areago, euforiko. Zerbait oker zebilela sumatu beharko nuen ordurako...

Akurien barrutira abiatu nintzen, amak dendariari askotariko galderak egiten zizkion

bitartean: kaiolak zenbat balio zuten, akuriak nola zaindu behar ziren, nolako usaina zuen animalion kakak...

Sei akuri zeuden barrutian, ezti-kolore leunekoak. Begi ilun-ilunak zituzten, eta sudur arrosa argia. Halako bat besarkatzen imajinatu nuen nire burua, haren ile leuna nire masailaren kontra igurzten. *Arren!* erregutu nuen nire kolkorako.

Amaren bila joan nintzen. Erakusmahaiaren atzean zegoen dendako jabearekin, beherantz begira. Ez dakit zergatik, baina Gary pozez zorutzen zegoen, eta ama baietz esaten ari zen buruarekin. Tyrone, bestalde, urrearrainei begira zegoen, sudurra arrainontzira itsatsita.

—Janari-poltsa doan emango dizut —esan zuen Garyk une hartan—. Baita lasto-poltsa handi bat ere etzalekurako. Hiru hilabetez ez duzu ezer erosi beharko.

—Eskaintza ona da, bai... —erantzun zuen

amak zalantzati, eta niregana itzuli zen-.
Jinnyri zer iruditzen zaion galdetuko diot.

Garyk hasperen egin zuen, gogaituta
nonbait.

—Jakina -esan zuen marmarka.

Amak hurbiltzeko keinu egin zidan.
Erakusmahaiaren behealdean kaiola bat
zegoen. Kaiolaren aldeetako batean bi ontzi
zeuden, urarekin bata eta pentsuarekin
bestea. Beste aldean, kutxatxo bat zegoen,
alboko zulora zeraman aldapa eta guzti. Itxita
zegoen tapa bat ere bazuen gainaldean.

—Agidanez, akuri honek etxe bat behar du
-hasi zitzaidan ama-. Garyk deskontu handia
egingo liguke kaiolan, eta lehen janari eta
lasto poltsak doan emango lizkiguke.

—Zer du bada? -galdetu nion mesfidati.

—Ez zaio ezer gertatzen -erantzun zuen
Garyk artega-. Berezi samarra da, eta ez da
ondo moldatzen beste akuriek.